



### **Gasteizeko erailketa matxista salatzen dugu**

Gasteizen gizon batek neska-laguna hil du, eta bere buruaz beste egin du ondoren. Gertakaria atzo goizean jazo zen Gasteizko Sansomendi auzoko etxebizitza batean. Emakumeak 37 urte zituen eta gizonezkoak 42. Bikotekideak ziren, eta, hainbat iturrik aipatu dutenez, banantze prozesuan zeuden. Bikotearen bi semeak adingabeak dira: 13 eta 17 urte dituzte.

Indarkeria matxistaren ondorioz 2003. urtetik hildako 112. emakumea da Euskal Herrian.

Gertakari hori dela-eta, Pasaia Udaletik jendaurrean eta aho batez adierazi nahi dugu emakumeenganako indarkeria gaitzesten dugula. Horrelako gertaerak ez ditugu gure gizartean onartzen, eta erakunde, elkarte eta herritarrok lanean jarraituko dugu, emakumeok indarkeria matxistarik gabe bizi gaitezen.

Hori horrela, mugimendu feministak deitutako mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten dugu.

Emakumeen aurkako indarkeria gehiagorik ez!

### **Denunciamos el crimen de violencia machista de Gasteiz**

En Vitoria-Gasteiz, un hombre ha matado a su pareja y posteriormente se ha suicidado. Los hechos ocurrieron ayer por la mañana en una vivienda del barrio Sansomendi. La mujer tenía 37 años y el hombre 42. Según han informado varias fuentes, estaban en proceso de separación. Los dos hijos de la pareja son menores de edad: tienen 13 y 17 años.

Ya son 112 las mujeres fallecidas por violencia machista en Euskal Herria desde 2003.

Ante este hecho, desde el Ayuntamiento de Pasaia queremos mostrar públicamente y de manera unánime nuestro rechazo a la violencia contra las mujeres. Este tipo de hechos no tienen cabida en nuestra sociedad y, por tanto, debemos seguir trabajando, tanto desde las instituciones y movimientos asociativos, como desde la ciudadanía, para que las mujeres podamos vivir libres de violencia machista.

Por todo ello, realizamos un llamamiento para participar en las movilizaciones promovidas por el movimiento feminista.

¡No más violencia contra las mujeres!

2021-10-12